



**Aurkezpen laburra.**  
**Eguneroko lanean ere, euskaraz**

## Zer da LanHitz?

LanHitz, lana eta hitza, euskara eta eguneroko lana uztartu eta indartzeko ekimena da.

Egun, asko eta askotarikoak dira euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko ahaleginetan ari diren enpresak.

Eta etorkizunean, gero eta gehiago izango dira.

Horiek guztiak dira gure bermerik onena !

## Zer egin dezaket nire enpresan?

Enpresa bakoitzak erabakitzen du bere helburuak eta inplikazio-maila zer-nolakoak izango diren. Horretarako, LanHitz programaren bidez, hainbat baliabide sortu ditugu, prozesua errazagoa egin dakizun.

Norberaren egoeratik abiatuta, enpresak ekintza puntualak bakarrik jar ditzake martxan, edo euskara-plana abian jarri.

## Zer da euskara-plan bat?

Euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko plana, zure enpresaren neurri-neurrira egina, eta euskarari bere tokia egiten lagundu behar diona.

## Nola egin euskara-plana?

Euskara-plana egiteko erabiltzen den moldea enpresa alorrean etengabeko hobekuntzarako erabili ohi den berbera da, PDCA zikloa, alegia: Planifikazioa (Plan), Gauzatzea (Do), Ebaluazioa (Check) eta Egokitzapena (Act).

## Zure enpresaren neurriko plana

Erreferentzia Marko Estandarra (EME) deritzan laguntza-koadroa osatu dugu, erakundeek era sistematiko, argi eta errazean euskararen erabilera eta presentziatzko helburuak jar ditzaten. Hiru ardatz nagusi biltzen ditu:

1. Irudia eta komunikazioa
2. Kanpo harremanak
3. Barne harremanak

## Laguntzak

Laguntzeko prest gaituzu bai diruz baita bestelako gaietan ere.

Aholkularitza teknikoa eskainiko dizugu diagnostikoa osatzeko, eta halaber, planaren diseinurako, kudeaketarako eta ebaluaziorako tresnak ere zure esku utziko ditugu.

Laguntza ekonomikoa ere eskuratuko duzu, honako alorretan:

- lehen euskara-planaren diseinua
- itzulpenak
- aldi bereko itzulpen zerbitzua
- euskal hiztunen trebakuntza
- softwarea
- jarraipen-, ebaluazio- eta birmoldatze-lana.

## Harremanetarako nora jo

Zu ere hurrengo pausoa emateko moduan zaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan. Atsegin handiz lagunduko dizugu.

**012** telefonoan

[lanhitz@ej-gv.es](mailto:lanhitz@ej-gv.es) helbidean

[www.euskadi.net/lanhitz](http://www.euskadi.net/lanhitz) web gunean